THINK TANK

Kultura politiko berriaren inguruko deliberazio prozesua: 18. Lan Dokumentua

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN BARNE ERALDAKETA PROZESUA: LEHEN HAUSNARKETA-EKINTZA ZIKLOTIK ATERATAKO IKASKETAK

(2022ko otsailaren 18a)

Sarrera

Kultura politiko berriaren lanketarako deliberazio talde honek bi proiektu (3 prozesu) hartu ditu jakintza ko-sortzeko erreferentzia moduan 2022rako. Bi proiektuetatik batek eraldaketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) barruan bilatuko du, bigarrenak lurraldean, mapatze prozesu baten bidez eta hirugarren prozesuak aurreko bietan egindako ikasketetan oinarrituz, deliberazio taldea bera garatu eta Gipuzkoan duen eragina areagotzea du helburu.

Deliberazio taldeak 2022ko otsailean izandako saioan lehen proiektuak garatu duen lehen hausnarketa-ekintza zikloa aurkeztu zen. Ziklo hau honela laburbildu daiteke:

a) *2021eko irailean* taldeari landu nahi ziren proiektu eta erronkak aurkeztu zitzaizkion, Eiderrek GFAren barne eraldaketa erronak azaldu zuelarik
b) *2021eko urrian*, Maria José Canelen eskutik, GFAn ordura arte barne eraldaketan egindako zenbait ahalegin azaldu ziren, batez ere Ekinez Ikasi egitasmoaren markoan, eta taldeak lanketa honetarako lehentasun eta irizpideak proposatu zituen
c) *2021eko azaroan*, La Region-27-en esperientzia aztertu eta, taldeak berriro ekarpenak egin zituen, besteak beste barne eraldaketarako prozesu batek izan behar dituen ezaugarrien inguruan
d) *2021eko abendutik 2022ko otsaila bitartean*, Eider Mendozak, Nerea Urcolaren laguntzarekin ekintza prozesu konkretu bat erraztu zuen, non ordura arte lankidetza maila bajua zuten bi GFAko eremuren artean lankidetzarako espazioa, irizpideak eta prozedurak finkatu ziren.
e) *2022ko otsailean* Eider Mendoza eta Nerea Urcolak prozesu honetako ikasketak partekatu zituzten eta hauek taldean landu ziren, think tankaren hurrengo pausoetarako lagungarri izan daitezen

Taldera ekarritako ikasketak

Ikasketa bakoitzaren inguruko azalpenak modu zehatzagoan 2022ko otsailaren 18ko memorian daude jasota. Hemen zerrendatu egiten dira:

a) Erabaki ausartak hartzea

Izandako esperientzian, prozesuaren hasieran berregituraketa zail bat egon zen. Prozesua gogorra izan zen denentzat, baina ondoren baldintza egokiak garatzen lagundu zuen.

b) Koherentzia

Prozesuan garrantzitsua izan zen GFAk kanpora zabaltzen duen mezua barruan ere ekintzara eramateko konbentzimendua edukitzea eta ekintzara eramatea.

c) *Helburu argia edukitzea*

Honek ez du esan nahi prozesuaren helburua aldaezina denik, izan ere, Eider Mendozak eginiko proposamena aldatu egin zen egindako hausnarketaren ondorioz. Baina behin adostutakoan, helburuak gidatu zuen prozesua.

d) *Arazoa ondo definitzea*

Helburua argi eduki arren, arazoa non dagoen diagnosia ona ez bada, prozesua okerreko bidetik joan daiteke.

e) *Atzera begiratzeke aurrera begiratu*

Sarri denbora asko galtzen da atzera begira, gertatu diren gauzei bueltaka. Garrantzitsua da eraldatu ahal izateko aurrera begiratzeko gaitasuna lantzea.

f) *Errudunak bilatzeari utzi*

Oso bide erraza izan daiteke arazoaren errudunak bilatu eta prozesua hor gelditzea, baina gainditu egin behar da tentazio hori

g) *Pertsonak*

Prozesu honetan eraldaketarako ardurak hartu zituzten pertsonak, haien jarrerak eta lan egiteko modua, prestutasuna eta elkarrekiko errespetua oinarrizkoak izan dira eraldaketa posible izan zedin

h) *Momentuz egokiaz baliatzea*

Aurretik eginak ziren GFAn prozesu honi oinarria jarri dioten beste hainbat ekimen, besteak beste think tankean landu zen Ekinez Ikasi ekimena. Baina prozesu honek beste prozesu batzuetan irekitako aukerak eta pertsonen ibilbideko faseak uztartu eta aurrerapauso bat ematen jakin izan du.

i) *Arazoa alde bakoitzarekin ondo bereizita aztertzea*

Pertsona bakoitzarekin lasaitasunez landu zen arazoa aurrena, elkarrekin lanean hasi aurretik. Honek baldintza egokiak sortu zituen ondoren dialogorako.

j) *Alde guztien konpromisoa eta aldeko borondatea*

Parte hartu duten pertsonek konpromezuak hartu eta lan asko egin dute.

k) *Konfiantza*

Partaideen artean garatu den konfiantzazko harremana oinarrizkoa izan da.

l) *Gainontzekoen laguntza*

Alde batetik, Eider Mendozaren parte hartzea oinarrizkoa izan da, bestetik, Nerea Urcolaren papera eskertu egin da, kanpotik laguntzera datozen pertsonek ere paper garrantzitsua joka dezaketela erakutsiz.

Taldearen hausnarketa

Taldeak orokorrean prozesua oso ondo baloratu zuen, ekarpenak x ideiaren baitan taldekatzen dira ondoren.

a) *Aurkeztutako prozesuaren garrantzia* eta han agertutako hainbat elementurena azpimarratu zen:
   a. Azaldu den arazoa, siloak eta departamentu arteko lankidetza falta ohikoak dira erakunde gehiagotan ere
   b. Lidergoaren papera oso garrantzitsua da horrelako eraldaketa prozesuetan
   c. Elkarlana sustatzeko, oso garrantzitsua da hizkuntza komunaren eraikuntza lantzea
   d. Nork agintzen du horrelako erakundeetan, teknikariek? Kargu politikoek? Ez daukagu argi, baina, eraldaketa ulertzeko galdera garrantzitsua da hau
b) *Prozesuaren hurrengo pausoen* inguruko kezkak azaldu eta hauekin laguntzeko ekarpenak egin ziren
   a. Proiektu hau bezalakoen eskutik GFAn eraldaketa sakona bilatu behar da
   b. Proiektuarekin lotuta, kezka bat sortu zaigu: nola eman jarraipena ekimen honi? Gure ustez orain arte agertu ez diren gatazka batzuk sor daitezke
   c. Aurrera begira ondorengoak kontuan hartu beharko dira: pertsonen izaera, borondatea, diskrezioa ulertzeko modua, emozioaren kudeaketa, boterea (proposatzen den prozesuarekin parte hartzaileek boterea galduko luketen edo ez) eta egoak
   d. Nola hedatu esperientzia hau sistemara? Aldaketak gogo onez eta azkar hartzen dituztenak (early adopters) gutxiengoa izaten dira, beste gutxi batzuk oso kontra egoten dira eta prozesua blokeatu dezakete. Gehiengoa, hasieran prestutasun handirik izan ez arren, aldaketak barneratzeko prest egongo da. Proposamena da early adopters-ekin bakarrik ez egitea lan, eta prozesua oztopatu dezaketenak lehen bait lehen identifikatzea.
c) *Prozesu honetatik beste batzuetarako* ikasketak ateratzeko saiakera egin zen. Kezka azaleratu zen hain denbora gutxian hain emaitza onak lortzeko baldintzak ez direla beti ematen, eta batez ere, profil horretako pertsonak ez direla beti egokitzen. Pertsonak hain garrantzitsuak izanik, prozesu bat abian jartzerakoan lan modu hauetarako profil egokiak dituzten pertsonak ez baditugu, merezi al du prozesu hori hastea? Ez ote litzateke eraginkorragoa eraldaketa lana beste nonbaiten fokatzea?